

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 722/2020 Erabakia, abenduaren 29koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen modernizazio, zerbitzu publikoak emateko arrazionalizazio eta produktibitatearen hobekuntzara bideratutako funtsa eratzeari 2020rako

Funtzio publikoan indarrean dagoen araubide juridikoa, ordainsariei dagokienez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legeak eta zenbait garapen-arauk arautzen dute, eta, bereziki, uztailaren 30eko 207/90 Dekretuak Herri-administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsarienak. Araudi hori urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako xedapenekin osatu behar da (2/2020 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, sektore publikoaren esparruan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituena). Bestalde, Foru Administrazioaren eremuan, Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako Aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 22ko 24/2019 Foru Araua argitaratu zen 2019ko abenduaren 30eko ALHAOn.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duenak, 37. artikuluan aipatzen duen entzunaldiko izaipidea bete da, Legegintzako Errege Dekretu horren IV. kapituluaren aurreikusitakoarekin bat etorritik, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, VI. tituluaren xedatutakoarekin lotuta.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen esparruan, produktibitate-osagarria apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduak eta haren ondorengo aldaketek arautzen dute. Bertan, kalitatearen araberako produktibitateari buruzko xehetasunak jasotzen dira, eta urtero funts bat eratzeko da, Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez onartua.

Bat etorritik Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartzen duenaren, 11.g artikuluan xedatutakoarekin, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuaren zeregin da, erakunde autonomo horren administrazio kontseiluko lehendakari den aldetik, Lehendakaritza Sailarekin koordinatuta, Diputatuen Kontseiluari urtero proposatzea erakunde horri atxikitako langileen ordainsari araubidea eta soldata baldintzak aplikatzea. Bestalde, Diputatuen Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onartzea, halaxe xedatzen baitu abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen, 8.17 artikulua, urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak, ekonomia jardueren eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoen kudeaketari buruzkoak, 7. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin harremanetan.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Sektore publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. Zazpi artikuluan xedatutakoaren babesean, funts bat eratu da zerbitzu publikoen prestazioa modernizatzeko, arrazionalizatzeko eta produktibitatea hobetzeko. Funts horren zenbatekoa Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 21eko 11/2020 Erabakiaren bidez 2019rako ezarritakoaren berdina izango da, ehuneko 2 gehiago,

Foru Gobernuaren Kontseiluaren 20eko 306/2020 Erabakian xedatutakoaren arabera. Funts hori kalitateagatiko produktibitate osagarriaren bidez aplikatuko da, apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduak araututako sistemaren arabera, Eranskineko 2. puntuko F) letra (produktibitate globala eta produktibitate osagarria).

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzi Errekurtoa arautzen duena), betiere 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 29an

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ